

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BASAURIKO UDALAREN 2017-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Joan den uztailaren 24an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen honako hauen 2017ko ekitaldiko ekonomia eta finantzaren kudeaketaren fiskalizazio txostena: Basauriko Udala, lau erakunde autonomoak (Kirolaren Udal Institutua, Kultura Etxea, Basauriko Udal Euskaltegia eta Norberaren autonomiarako komunitate- eta egoitza-laguntzarako udal zentroa) eta bi sozietate publikoak (Behargintza Basauri-Etxebarri SL eta Bidebi Basauri SL).

2017ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

HKEEk aztergai izan duen Kontu Orokoretik eratorritako finantza egoera aztertu eta ondorioztatu du Gastu Orokoretarako Diruzaintza Geldikinak, aztertutako hiru ekitaldietan positiboa izan denak (2015, 2016 eta 2017), gora egin duela 2017an, nagusiki eutsi egin zaielako gastu arruntei, sarrera arrunten igoerari eta Lurraren Ondare Publikoaren besterentzeari. Aztertutako aldian udalaren zorpetzea 2,1 milioi euro murriztu da.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela.

Udalak zein erakunde autonomo eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, ez da egiaztatu 6 enplegaturi 2017an ordaindutako borondatezko erretiro-sariak NUIZetik salbuetsitako lan etekinak direnik; gainera, Behargintza Basauri-Etxebarri SLko Koordinatzaile lanposturako onartutako ordainsariak gainditu egiten du Estatuko Aurrekontu Orokoren Legean 2017ko urterako finkatutako gehiengo igoera.